

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



26. Informazio Buletina
2008ko Uztaila-Abuztua





NABARMENDU BEHARREKOA

Europar Batasuneko aurrekontuen proiektua 114.970 milioi eurokoa da 2009. urterako

Europar Batasuneko hogeita zazpi gobernuetako ordezkariak aho batez onartu dute 2009. urterako aurrekontuen proiektua, Europako Parlamentuan horien inguruko eztabaida egin ostean. Horien zenbatekoa 114.970 milioi eurokoa izango da ordainketa kredituetan eta 133.930 milioi eurokoa konpromiso kredituetan.

Proiektuak agerian uzten ditu hirugarren estatu batzuekiko elkartasuna, kohesioa, lehiakortasuna eta hazkundea, energia/klima, migrazio politikak eta NPBra egokitzea direla komunitateko lehentasun nagusiak.

Gastuaren bolumenik handienak gai hauen ingurukoak dira: nekazaritza eta baliabide naturalen kudeaketa, eta kohesio politika. Horiez gain, baina neurri txikiagoan, ikerkuntza eta lehiakortasuna eta atzerriko ekintzak dira beste gai nagusi batzuk.

Informazio gehiago:

http://ue2008.fr/webdav/site/PFUE/shared/import/0717_resultats_ECOFIN_budget/PJ_budget_17-07_ES.pdf

Europar Batasuneko BPG % 0,1 jaitsi da bigarren hiruhilekoan

Urteko bigarren hiruhilekoan Europako ekonomiak izan duen bilakaerarekin lotuta Eurostatek egin dituen aurretiazko estimazioen arabera, BPGk jaitsiera minimoa izan du; jaitsiera % 0,1ekoa izan da aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta. Izan ere, aurreko hiruhilekoan hazkunde tasa nabarmen izan zen positiboa (% 0,7). Bilakaera ekonomiko negatiboa izan duten herrialdeetako batzuk Alemania, Frantzia eta Italia dira.

Urtetik urterako aldaketa tasari dagokionez (2007ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta), Batasuneko ekonomiak aldaketa tasa positiboa izan zuen: % 1,7koa.

Informazio gehiago (inglés):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/pls/portal/docs/PAGE/PGP_PRD_CAT_PREREL/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008_MONTH_08/2-14082008-EN-AP.PDF

Europako Estatistika Ekonomikoak 2008

Argitalpen hori da Europar Batasuneko, kide diren estatuetako eta elkartutako zenbait herrialdeetako estatistika ekonomikoen multzoaren urteko jarraipenari eta epe ertaineko jarraipenari dagokion erreferentzia nagusia.

Eurostateko adierazle nagusiak erakusten ditu atal nagusi hauetan egituratuta: nazio baitako kontuak, finantza publikoak, inflazioa, interes tasak eta kanbio tasak, ekonomiaren nazioarteko neurria eta lan merkatua.

Era berean, metodologiaren inguruko atal zabala eta estatistikako eranskin zehatza ere biltzen ditu.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-30-08-410/EN/KS-30-08-410-EN.PDF



KOHESIO POLITIKA

Gipuzkoako landatar eremuen garapenerako laguntzak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak uztail amaieran onartu zuen Gipuzkoako landatar eremuetako nekazaritzako ustiapenen lehiakortasuna eta ingurumen mailako iraunkortasuna hobetzeko eta garatzeko laguntzak biltzen dituen dekretua.

Bildutako laguntzen helburua nekazaritzako ustiapenen egitura mailako modernizazioa lortzea, produkzio prozesuetan teknologia berriak txertatzea eta nekazaritzako produkzioaren ahalmena birmoldatzea eta berriz orientatzea dira. Era berean, beste helburu batzuk honakoak dira: produkzio sektorea gaztetzea eta ingurumena eta landatar ingurunea hobetzea.

Laguntza horiek elkarren artean finantzatuko dituzte Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtzak (LGENF/FEADER) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Era berean, nekazaritza sektoreari laguntza teknikoa emateko jardueretara eta nekazaritzako aseguruaren primak ordaintzera zuzendutako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak soilik finantzatutako laguntzak ere biltzen ditu.

Informazio gehiago:

<http://www4.gipuzkoa.net/corporac/gnet/actNoticia.asp?c=5482&p=ciu&i=e>

2008ko LIFE+ proposamenen deialdia

Europako Batzordeak 2008ko LIFE+ deialdirako proposamenen aurkezpenerako gonbidapena egin du uztailaren 15eko Aldizkari Ofizialean agertzen den moduan. Deialdiak gai hauek biltzen ditu: natura eta biodibertsitatea, ingurumen politika eta gobernantza, eta informazioa eta komunikazioa.

Diru laguntzetarako aurrekontu orokorra 207,5 milioi eurokoa da. Espainiako estatuari dagokion zenbatekoa 22,2 milioi eurokoa da gutxi gorabehera.

Finantza mailako ekarpenaren ehunekoa, oro har, % 50 artekoa da eta diruz lagun daitezkeen gastuak eta proposamenak aurkezteko epea azaroaren 21ean amaituko da.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2008:178:0022:0024:ES:PDF>

Regional Focus

"Regional Focus"ek Europako Batzordearen DG Regiok prestatutako gai espezifikoak lantzen dituzten eta nahiko laburrak diren artikulua biltzen ditu. Lehen artikulua landatar munduko eskualdeetan eta inguruko hiriekin duten harremanean oinarrituta dago.

Artikulu hori DG Regionen Ikerketak izeneko orrialde berrian agertzen da bere webguneko argitalpenen atalean. Era berean, eskualde mailako ingurumen, gizarte eta ekonomia gaiekin lotura duten laneko dokumentuak ere bilduko ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/study_es.htm



Inforegio News

DG Regioneen uztaileko informazio oharrak kohesio politikaren hogeigarren urteurrena ospatzea du oinarri.

Era berean, lankidetzaren errazteko tresna juridiko berria eta kohesioaren inguruko bosgarren txostena aurkezten ditu. Horren izena Lurralde mailako Lankidetzako Europako Elkarteak (AECT) da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/newsroom/newslet170/archiv_fr.htm





KOMUNITATEKO POLITIKAK

Agenda Sozial Berritua: Aukerak, sarrera eta elkartasuna XXI. mendeko Europan

Europako Komunitateen Batzordearen Agenda Sozial Berrituaren helburua erantzun berriak eskatzen dituzten errealitate sozial berriak lantzea da. Aldaketak bizkor gertatzen dira eta politikek erritmo horretan egokitu behar dute, globalizazioak, aurrerapen teknologikoeak eta eboluzio demografikoak biltzen dituzten erronkei modu berritzailean eta malguan erantzunez.

Agenda Sozial Berrituaren helburua europarrak hornitzea eta haien rola indartzea da. Helburu hori batez ere gazteen kasuan lortu nahi da bizkor aldatzen diren errealitateak lantzeko. Era berean, aldaketa horiei aurre egiteko zailtasunak dituztenei laguntzea du xede.

Proposatutako ekimenek lehenetsun hauek dituzte oinarri: etorkizunerako prestatzea: gazteria eta haurtzarora, pertsonengan inbertsioak egitea: aldaketa kudeatzea, bizitza luzeagoak eta osasuntsuagoak babestea, bazterkeriari aurre egitea eta gizarte bazterkeriari eta txirotasunari aurre egitea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0412:FIN:ES:PDF>

Garraio ekologikoagorantz

Europako Batzordeak "garraio ekologikoa" helburu duten ekimen multzoa aurkeztu du garraioa iraunkortasunerantz bideratzeko.

Ekimen horien artean, aipatu beharrekoa da lehenengo eta behin garraio prezioek gizarterako duten benetako kostua hobeto agertzea zuzendutako estrategia ingurumeneko kalteak eta pilaketa pixkanaka gutxitze aldera, garraioaren eragingarritasuna bultzatu ahal izateko eta, beste nolabait esanda, ekonomia, bere osotasunean, indartzeko.

Eta, era berean, aipatu beharrekoa da kide diren estatuek helburu hori lortzen laguntzera zuzendutako beste proposamen bat. Proposamen horrek eragingarriagoak eta ekologikoagoak diren errepideko bidesariak biltzen ditu. Sari horiek kamioiei kobratuko litzaizkieke eta diru sarrera horiek garraioak ingurumenean dituen eraginak arintzeko eta pilaketa eragozteko erabiliko lirateke.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/transport/greening/index_en.htm

I+G adinduen bizi kalitatea hobetzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabileraren bidez

Europako Parlamentuak eta Batzordeak IKTen arloan "Inguruneak lagundutako eguneroko bizitza" (AAL) izenekoaren ikerketarako eta garapenerako eta informazioaren gizartean hobeto zahartzeko programa bateratuan parte hartzea erabaki dute.

AAL izeneko programa bateratu horren helburua zahartzearen erronka demografikoari aurre egitea da. Horretarako, kide diren estatuen artean neurri handiko Europako lankidetzarako beharrezkoa den antolaketako eta zuzenbide arloko testuingurua sortu nahi dute



informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin eta zahartzearekin lotura duen ikerkuntza aplikatuarekin eta berrikuntzarekin lotuta, zahartzen ari den gizartea oinarri hartuta.

Parte hartze horren balio orokorra 150 milioi eurokoa izango da gutxienez zazpigarren esparru programa hori indarrean egongo den bitartean (2007-2013).

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2008:201:0049:0057:ES:PDF>

Kontsumo eta Produkzio Iraunkorraren inguruko Ekintza Plana eta Iraunkorra den Politika Industrialia

Europako Batzordeak EBn barneratuta dagoen eta nazioarteko eskala duen planteamenduari babesa ematen dion estrategia erakusten duen dokumentuak hartu du bere gain. Horren helburua kontsumo eta produkzio iraunkorrak bultzatzea eta iraunkorra den politika industrialia sustatzea dira.

Ekintza Planaren oinarria produktuen energia eta ingurumen mailako ezaugarriak hobetzeri eta kontsumitzaileek haien erabilera bultzatzeri zuzenduta dagoen testuinguru dinamikoa da.

Planteamendua ingurumeneko inpaktua gutxitzeko aukera handiak dituzten produktuen kasuan aplikatuko da. Helburua zirkulu birtuosoaren sortzea da: produktuen ingurumeneko ezaugarri orokorrak hobetzea bizitza ziklo osoan produktu eta produkzio teknologia hobeen eskaera bultzatuz eta bizkortuz, eta kontsumitzaileei hobeto aukeratzeko lagunduz koherenteagoa eta soilagoa den etiketatzeari esker.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0397:FIN:ES:PDF>

Enplegu politiketarako orientabideak

Berritutako Lisboako Estrategiaren garapen testuinguruaren baitan, Batasuneko Batzordeak hainbat orientabide hartu ditu bere gain kide diren estatuetakoko enplegu politiketarako.

Horien artean, landu beharreko alderdi nagusi gisa, hauek agertzen dira:

- jende gehiago erakartzea lan merkatura sartu eta bertan gera daitezen.
- esku lanaren eskaintza handitzea eta babes sozialeko sistemak modernizatzea, langileen eta enpresen moldagarritasuna hobetzea eta
- giza kapitalean egindako inbertsioa handitzea hezkuntza eta prestakuntza hobetuz.

Orientabideak baliozkoak izango dira hiru urtez.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2008:198:0047:0054:ES:PDF>



e-LIBURUTEGIA

Administrazio Publikoen kontuak Euskal Autonomia Erkidegoan 2006

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek (Euskadiko administrazioek eta Estatuko Administrazioak eta erregionalizatutako Gizarte Segurantzak) 2.824 milioi euroko superabita izan zuten 2006an; hau da, BPGren % 4,6koa, Eustatek prestatutako datuen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen finantzaketa ahalmenak izan zuen hobekuntza, aurreko urtearekin alderatuta, BPGren % 0,6koa izan zen.

Estatuko Administrazioak eta erregionalizatutako Gizarte Segurantzak, oro har, 1.562 milioi euroko superabita izan zuten Euskal Autonomia Erkidegoan. Aldiz, Euskadiko administrazioen saldoa 1.262 milioikoa izan zen 2006an.

Informazio gehiago:

<http://www.eustat.es/estad/temalista.asp?idioma=e&tema=190&opt=1&tipo=1&mas=&otro=>

UdalGIDA aldizkariaren 18. alea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasuna eta Finantza Departamentuak argitaratutako UdalGIDA aldizkariaren 18. aleak, ohiko atalez gain (estatistikak, legeria, kontsultak eta ebazpenak, epaiak...), hauen inguruko beste bi artikulua biltzen ditu:

UDALMAP: eskualde mailako garapen eredua bultzatzen duen eta Euskadiko lehiakortasunaren hobekuntzan laguntzen duen zerbitzu publiko berria.

Kudeaketako aparteko aurrekontua 2008-2011. Administrazio orekatuari esker, lurraldearen garapenerako aparteko aurrekontua.

Informazio gehiago:

<http://webwpub1.gipuzkoa.net/wps/portal/ogasuna/udalgida>

Turismoaren egoera Europar Batasunean eta Gipuzkoan

Eurostatek prestatutako Turismoaren Egoera Europan (2008ko edizioa) izeneko lanak sektoreak Europan eta kide diren estatuetan izan duen bilakaeraren ezaugarri nagusiak biltzen ditu: magnitude nagusien bilakaera historikoa, eta ostatuaren eskaintzaren eta Europako eskaera turistikoaren ezaugarrien egitura eta bilakaera.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-30-08-550/EN/KS-30-08-550-EN.PDF

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirolak eta Kanpo Ekintza Departamentuak argitaratutako "Turismoaren Ikuspegia Gipuzkoan 2007" argitalpenak urte hartako turismo jardueraren bilakaera biltzen du eskaerarekin eta sektore mailako eskaintzarekin lotutako adierazle nagusiak aztertuz.

Informazio gehiago:

http://www.gipuzkoa.net/noticias/archivos/panoramaturismo07_eu.pdf



Europar Batasuneko ingurumen politika 2007an

2007. urtea inflexio puntua izan zen Batasuneko ingurumen politikan. Izan ere, Ingurumeneko VI. Programan jasotako konpromiso nagusiak bete ziren eta ingurumena lehentasun estrategikoen artean irmoki errotuta daude eta politikarientzat, komunikabideentzat eta herritarrentzat intereseko gaitako bat da dagoeneko.

Baina beharrezkoa da etorkizuneko erronka nagusiei aurre egiteko bultzada berria: Iraunkortasuna. Gaur egun, munduko ekonomia ez da iraunkorra. Etorkizunean, munduko ekonomiak adimentsuagoa, gutxiago kutsatzen duena eta baliabide gutxiago kontsumitzen duena izan beharko du. Erronka horri lehenago erantzuten dien ekonomiak izango dira aldaketaren onura gehien lortuko dutenak ondorioak jasan beharrean. Gainera, eragin ekonomiko eta politiko handiagoa lortuko dute.

Klima aldaketara egokitzea. Klima aldaketa izango da gizateriak hurrengo ehun urteotan aurre egin beharko dion erronka nagusietako bat. Horretarako, bi gai landu beharko ditu: tenperaturaren igoera mugatu fenomeno klimatiko katastrofikoak ekidin ahal izateko eta ekidinezina den aldaketa kudeatzeko egokitze prozesua garatzea.

Biodibertsitatea babestea. Biodibertsitatearen galera klima aldaketa bezain larria den eta hura bezain premiazkoa den mundu mailako arazoa da. Zentzu batean, gainera, are kezagarriagoa dela esan dezakegu. Izan ere, espezie bat desagertzea atzeraezina da eta biodibertsitatea da etorkizunerako gure bizitza aseguruia.

Informazio gehiago:

[http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=SPLIT_COM:2008:0409\(01\):FIN:ES:DOC](http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=SPLIT_COM:2008:0409(01):FIN:ES:DOC)

Europako Batzordearen atari berria: gizarte gaiterako webgunea

Enplegua, Gizarte Gaiak eta Aukera Berdintasuna Zuzendaritza Nagusiaren atariak gai hauen inguruko informazioa biltzen du: enplegua, pentsioak, bazterkeria, txirotasuna, laneko osasuna eta segurtasuna, mugigarritasuna, aukera berdintasuna, osasuna, gizarte zerbitzuak eta finantzaketa.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social>

Ikerkuntzako azpiegituren inguruko atari berria

Europako ikerkuntzako azpiegituren inguruko web atari berriak Europako ikerketako azpiegituren inguruko egoera zabala eskaintzen du.

Ikerkuntzako azpiegiturak komunitate zientifikoak lantzen dituen esparruetan mailarik altueneko esperimenduak egiteko erabili ohi dituen instalazioak, baliabideak eta zerbitzuak biltzen ditu. Ereku zientifikoaren arabera ordenatutako ikerkuntzako azpiegituren sareen zerrendak biltzen ditu. Besteak beste, fisika nuklearreko eta partikulen fisikako sareak, astronomia, astrofisika; ingurumena, lurreko eta itsasoko zientziak; humanitateak; ingeniariak; gizarte zientziak; informatika eta datuen prozesatzea; materialen zientziak; bizitzako zientziak eta biomedikoak eta azpiegitura elektronikoen proiektuak sartzen dira.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://www.rportal.eu/public/index.cfm?fuseaction=ri.search>



ADIERAZLEAK

Zerga itunduen arabeko bilketa % 1,2 jaitsi zen Gipuzkoan

Gipuzkoako Foru Aldundiak urteko lehen seihilekoan zerga itunduen bidez bildutako diru likidoa 1.444 milioi eurokoa izan zen; beste nolabait esanda, aurreko urtearekin alderatuta, jaitsiera % 1,2koa izan zen.

Jaitsiera horren arrazoi nagusia ondare eskualdaketen gaineko zergaren eta gestio propioari dagokion BEZaren bilketak izandako atzerakada izan zen.

Bilketari dagokionez, garrantzi handiena izan duten zerga mailako kontzeptuei dagokienez, PFEZ % 3 hazi da; Sozietateen gaineko Zerga % 11; aldiz, gestio propioari dagokion BEZa % 3 jaitsi da eta Zerga Bereziak % 6 handitu dira.

Informazio gehiago:

<http://webwpub1.gipuzkoa.net/wps/portal/ogasuna/udalgida>

Gipuzkoako enplegu tasa % 70 baino gehiagokoa da, Europar Batasuneko batez bestekoa baino altuagoa

2007. urtean, 16 eta 64 urte arteko gipuzkoarren enplegu tasa % 70,1era igo zen eta Europar Batasuna-27ko batez bestekoa nabarmen gainditu zuen (% 65,4).

Batasuneko sei herrialdek dute Gipuzkoakoa baino tasa altuagoa: Danimarkak, Suediak, Austriak, Erresuma Batuak, Ziprek eta Finlandiak.

Europar Batasunaren helburua, Lisboako Estrategiaren testuinguruaren baitan, 2010. urtearen aurretik, % 70eko enplegu tasa orokorra lortzea da batez beste; emakumezkoen enplegu tasari dagokionez, aldiz, helburua gutxienez % 60ko tasa lortzea da, eta adin nagusiagoko biztanleriaren (55 eta 64 urte artekoak) kasuan, aldiz, % 50ekoa.

Gipuzkoan, tasa orokorrak, lehen aldiz, Europako helburua gainditu du. Gainera, emakumezkoen enpleguari dagokion helburua ere bete du (2007. urtean, % 60,5ekoa zen), baina ez adin nagusikoei dagokiena.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ele/ele0002500/tbl0002545_e.html

Bikoiztu egin da defizit komertziala Europar Batasuna-27an

Aurtengo lehen seihilekoan, EB-27ko balantza komertzialaren (estra-EB) defizita 20,1 mila milioi eurora arte handitu da. Hori dela eta, aurreko urteko saldo negatiboa bikoiztu egin dela esan dezakegu balantza energetikoaren defizita igo izanaren ondorioz.

Kide diren estatuen saldoak alde handiak ditu batetik bestera. Izan ere, nabarmendu beharrekoak dira Erresuma Batuko, Espainiako eta Frantziako defizitak. Aldiz, Alemaniak, Herbehereek eta Irlandak superabit saldoa mantendu dute.

Azken urtean, gainera, nabarmen handitu dira hazten ari diren ekonomietara egindako Europako esportazioak: Errusia, Brasil, Txina, India eta Turkia.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/pls/portal/docs/PAGE/PGP_PRD_CAT_PREREL/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008_MONTH_08/6-18082008-EN-AP.PDF



PARTAIDETZA

Europarren erdiak uste du bizitza kalitatea okertu egingo dela hurrengo 20 urteotan

Apirilean egindako Eurobarometroaren inkestaren arabera, galdeketari erantzun zioten pertsonen % 49k uste zuten bizitza kalitatea okertu egingo dela bere herrialdean hurrengo hogeitun urteotan. Aldiz, % 38 baikor agertu ziren beren etorkizunari dagokionez.

Ezkortasuna, gainera, handitu egiten da adinaren arabera. Aldiz, gutxitu egiten da ikasketa mailaren eta egoitza ingurunearen urbanizazio mailaren arabera.

Batasunak bizi izan dituen azken handitze prozesuetako estatuetako herritarrak apur bat baikorragoak dira EB-15 osatzen zuten herrialdeetako biztanleekin alderatuta. Izan ere, Batasunera berriki sartu diren herrialdeetako biztanleen % 59k uste dute egoera soziala hobetu egingo dela; aldiz, EB-15eko herritarren % 32k agertu zuten iritzi hori.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/public_opinion/flash/fl_227_sum_en.pdf

